

## 'Cuesta de la Muerten' rotonda egin eta Latxunbekoarekin lotuko da

Latxunbe eta Florida zuzen-zuzen elkartuta geratuko dira. Auto pilaketa haundiak sortzen diren tokiak arindu nahi dira.



Auto bat Antziolan, Sagastialdeko bidetik Cuesta de la Muertera; hortxe egingo dute rotonda.

BIZILEKU berriei irteera egokia eman eta auto pilaketa haundiak arintzeko, Florida eta Latxunbe elkartu nahi dira. Sagastialdetik Antziolara doan bidea aprobetxatu, Cuesta de la Muerten rotonda egin, eta zuzen-zuzen Latxunbekoraino egingo da bidea. Udaleko Hirigintza batzordean plana onartua dago eta orain terreno-

ak eskuratzeko tramiteak hasi dira; behin eskuratuta, bi hilabeteren buruan hasiko omen dira lanak.

**ABIADURA MANTSOTU**  
Cuesta de la Muerte norabide bakarreko bidea izaki, autoak abiadura haundian pasatzen dira Antziolatik. Manuel Fraile Hirigintzako zinego-

tziaren esanetan rotondak irtenbidea ematen dio honi "oraingo bidean abiadura jaitsi araziko baitie autoei". Bideak, ezkerrean oinezkoentzako espaloia ere izango du.

Florida-Latxunbeko bidea Hernaniko herria hobeto lotuko duen proiektu haundiago baten parte da. □

### MENDIRIZ MENDI ELKARTEA

## Mendizale astea istripuei aurre egiteko ikastaroarekin hasiko da gaur

Ramon Garatek emango du gaur, asteazkenean eta ostegunean Mendiriz Mendiko lokalean. Gainontzeko ekitaldiak hurrengo astean hasiko dira.

21. MENDIZALE asteari mendiko istripuei aurre egiteko ikastaroak emango dio hasiera. Datorren astean diapositiba emanaldien txanda izango da; herriko nahiz kanpoko jendeak bere abenturak erakutsiko ditu Biteri kultur etxean. Azaroaren 10ean (ostirala) diapositiba sarituen proiektzioa eta sari banaketa izango dira, eta elkarteko haurrei dominak banatuko zaizkie. Urederrarako bidaiarekin bukatuko da astea. □

### EGITARAUA

■ Urriaren 30 eta azaroaren 2 eta 3an. Nola aurre egin mendi istripuei ikastaroa. 20:00-21:30.

#### Diapositiba emanaldiak 7:30etan Biterin

■ Azaroak 6. Cristobal Burgozen *Euskal Herria: montaña y naturaleza* eta *Austria-Tirol*.

■ Azaroak 7. Jose Ramon Agirrerren *Bidaia nire erraietara: Nepal*.

■ Azaroak 8. Jabier Albisturren *Gipuzkoa Trak* eta *Atlas: Toubkal eta Mgoun inguruak*.

■ Azaroak 9. Hernaniarrek egindako diapositiba muntaiak

■ Azaroak 10. XXI Diapositiba lehiaketa.

#### Irteera.

■ Azaroak 12. Mendi irteera Urederrara (Bazkide eguna).

## Tabakoa uzteko ikastaroa gaur arratsaldean hasiko da

Bi taldetan emango da ikastaroa: lehenengoa, 17:45-18:45; eta bigarrena, 19:00-20:00.

ONGINTZAKO drogomenpekotasun eta prebentzio sailak erretzeari uzteko ikastaroa antolatuta du, erretzaileek bere eskatuta. Ikastaroa sei astekoa izango da; astelehenetan bilduko dira bi taldetan. Ikastaroa eman eta zuzenduko duena Estitxu Fernandez psikologo lesakarra da, eta Minbiziaren aurkako Gipuzkoako Elkarteko kidea da bera.

#### AURREKO ESPERIENTZIA

Tabakoa utzi nahi duten guztiek ez dute beren helburu osoa betetzen. Baina, gehienek ohitura batzuk behintzat aldatzen dituzte: gutxiago erre, etxean erre ez, otortuetan bakarrik... Aurreko ikastaroan 20tik zazpik utzi zioten erabat erretzeari, baina gainerakoek ez dute lehen bezala erretzen. □

### XALAPARTA ELKARTEA

## VII Sagardo lehiaketa azaroaren 25ean izango da

Bazkideek azaroaren 5a artekoa dute izena emateko.

XALAPARTA elkarteak antolatuta du aurtengo Sagardo lehiaketa. Hernaniko eta inguruko 10 sagardogilek jarriko dituzte sagardoak: Akarregi, Alberro, Alzueta, Eizmendi, Elorrabi, Elutxeta, Eula, Otsuenea, Oiarbide eta Zelaia.

#### AFARIA 3500

Tripa ondo betetzeko adina jenero izango du afariak: makailoa saltsa berdean, txuletak, gazta eta intxaurrek eta kafe konpletoa. Xalapartako bazkide ez direnek, azaroaren 13tik 19ra bitartean dute izena emateko epea.

**ELUR-TXORIN, LARUNBAT HONETAN**  
Elur-Txoriko XVIII Sagardo lehiaketa, berriz, datorren larunbatean egingo da. Hemen ere 10 sagardogile izango dira: Urrietatik Setien eta Urruzola; Astigarragatik Oiarbide; Zubietatik Astiazaran; eta herrikoak Alberro, Rufino, Zelaia, Elorrabi, Iparragirre eta Alzueta.

Bazkideek izena emateko epea bukatu da eta bazkide ez direnak datorren osteguna arteko epea dute. Sagardotegiko menua izango da afaria; iluntzeko zortzietan. □

## Masajea eta fisioterapia zerbitzua kiroldegian

Orduerdi eta ordubeteko saioak izango dira. Eskaintza hau kiroldegiko bazkideentzat da.

Hernaniko Kiroldegiak zerbitzu berria jarri du martxan. Helburua, kirola egiten duen jendeak lesioak konpontzeko, tratamenduak egiteko... asistentzia izatea da, eta gainera, normalean baino merkeago. "Ikusten genuen -kiroldegiko arduadun batek- kiroldegian falta zela horrelako zerbitzu bat. Gainera, ia erdi prezioan ateratzen da"

#### LAU ASISTENTZIA

Zerbitzuak lau gauza ditu: 1) Fisioterapia eta masajea, erreabilitazioak eta tratamenduak egiteko: orduerdi-2.500, ordubete-4.050. 2) Masajea:

orduerdi-3.000, ordubete-4.950. 3) Osatzeko gimnasia: hau taldea da eta talde osoa ordubete-5.000. 4) Hezkuntza: hau ere taldea; taldea ordubete-6.000.

#### ORDUTEGIA

Egunak eta orduak jarrita daude, baina, zenbat apuntatzen den ikusita, jendearen beharretara moldatzeko aukera egon liteke. Berez, astelehenean, asteazkenean eta ostiralean izango dira, arratsaldeko lauetatik zortzietara. Zerbitzu hauek Onintza Esnal fisioterapeuta eta masajistak emango ditu. □

## ■ WATERPOLOA

# Hernani Gipuzkoako txapeldun Eibarri 14-1 irabazita

Datorren larunbatean hasiko dute Euskadiko Liga eta Ibon Mendoza entrenatzaileak irabazteko esperantzak ditu. Lehen partidua Gasteizko Menditxoren aurka.



Hernaniko Waterpoloko mutilen taldea piszina txikian pozik, atzo Gipuzkoako Liga irabazita.

HERRIKO waterpolo taldeak lortu du denboraldiko lehen titulua. Berez, oraindik partidu bat gelditzen zaio jokatzeko, baina, dagoeneko Gipuzkoako txapeldunak dira. Ondo merezitako txapeldunak, gainera, jokaturako partidu guztiak irabazi dituzte-eta. Atzokoa ere Eibarri (bigarre-na sailkapenean) sekulako egurra emanda.

### 13 WATERPOLOLARI

Atzoko partidua jokatu zutenak hauetxek dira: Santiago Busto, Mikel Andres (2 gol), Xabier Goenaga (3 gol), Jose Mari Maroño (3 gol), Josemi Sanchez (2 gol), Jon Ander Izuzkiza, Julen Gil (2 gol), Asier Zubimendi (2 gol) Ibon Mendoza (3 gol), Ion Casas, Mikel Etxeberri (gol 1) eta Juan Lumbreras (4 gol).

### TXAPEL BILA

Iaz Euskadiko Ligan bosgarren postuan bukatu zuen Hernaniko taldeak; "Baina, orduan zorte txarra izan genuen" -dio Mendoza entrenatzaileak-. Orain bi urte berriz, bigarren egin zuten, eta aurten irabazteko aukerak omen ditu. Euskadiko ligan 9 ekipo daude: Hegoaldeko 4 probintzietatik 8 eta Burgoseko bat. □

## JUBILATU ETXEA

### Larunbatean Corellara bidaia

HERNANIKO jubilatuen Nafarroako Corella herrira joango dira datorren larunbatean, egun osorako. Nortzuk joango diren jakiteko, zozketa gaur egingo da arratsaldeko 17:00etan Jubilatutxan. □

## ■ ERRUGBIA

### Gernikan 24-15 galdu du Hernanik

PARTIDU gogorra jokatu zuten larunbatean Gernikak eta Hernanik. Hiru baja garrantzitsu zituzten hernanienek eta ezin izan zioten bizkaitarrei neurria hartu. Sailkapenean azkenak dira. □

## ■ BOLEIBOLA

### UPV Hernani 0-3 irabazi eta bigarren postuan da

CANTABRIAN, atzo, Corrales Justina egurtuta, Euskadiko ligan bigarren da Hernaniko taldea. Jokoak: 9-25, 13-25, 18-25. □

## HERIOTZAK

Jakoba Apezetxea Zinkunegi  
Atzo hil zen 103 urte zituela  
Hileta elizkizuna gaur, astelehena, seietan, Ereñotzuko Parrokian.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ ASTEARTEA

- ▶ Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7  
☎ 943 552941
- ▶ Gaeuz: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi, 12  
☎ 943 592415

### ✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Irigoyen Elkano, 2  
☎ 943 552087
- ▶ Gaeuz: Elizondo Andoain. Zumea, 30  
☎ 943 592629

### ✚ ASTEAZKENA

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz, 48  
☎ 943 551793
- ▶ Gaeuz: Chucla Kardaberaz, 48  
☎ 943 551793

## ASTEBURUKO EMAITZAK

### ■ PELOTA

*Gipuzkoako Openeko finala* (giz.)  
Esnal - Laskurain 22  
Ansotegi - Errasti 18

### ■ FUTBOLA

*3.maila*  
Hernani 2 - Bergara 2  
*Gazteen Liga Nazionala* (giz.)  
Tolosa 0 - Hernani 0  
*Emakumezkoen Liga*  
Tolosa 1-Hernani 1  
*Kadeteen Ohorezko Liga*  
Sto Tomas Lizoea 0 - Hernani 2

### ■ ERRUGBIA

*1 Liga Nazionala*  
Gernika 24 - Hernani 15  
*Jubenilen Euskal Liga*  
Hernani 91 - Mungia 0  
*Kadeteak Cote Basque*  
San Juan de Luz 30 - Hernani 5

### ■ BOLEIBOLA

*Euskadiko liga* (gizonezkoak)  
Corrales Justina 0 - UPV 3 Hernani  
*Jubenilak* (mutilak)  
Hernani 3 - Textil Santanderina 0  
*Kadeteak* (neskak)

Langile 3 - Arantzazuko ama 0  
*kadeteak 3x3* (neskak)  
Leizaran Txiki 2 - Inmaculada 1

### ■ WATERPOLOA

*Gipuzkoako Liga*  
Hernani 14 - Eibar 1

## LEHIAKETA

### BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Apeadero taberna kanpoko armarria.

■ **Asmatu dutenak:** Joxe M<sup>a</sup> Zelarain, *Putre*, Maddi Iradi, Denis Sorondo eta Marian Apezetxea.

## Kanposantua bete lore Santu Guztien egunerako

Etzi da, asteazkenean, eta jai eguna izango da.



Hernaniko kanposantua, atzo eguerdian.

## IRAGARKI MERKEAK

Neska bat behar da goizez, haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko.

☎ 629- 126020